

MERKATUEN SEGMENTAZIOA



Beren beharrianak hobeto asetzeko bezeroak ezaugarri komunak arabera taldekatu behar ditugu.

Gure enpresak eskaintzen duen produktua ez da bezero konkretu batzuentzat, baizik eta gizarte osoarentzat pentsatua. Gure helburu nagusia, kutsadura murriztearekin batera, mundua hobetzea da. Horretarako, gure ideia planetaren osasuna babesteko eta hobetzeko pentsatuta dago. Gure produktua erabiliz, gizartearen osasuna hobetzeaz gain, ingurumenaren zaintza sustatuko dugu, eta horrela, etorkizun hobe eraikitzen ere lagunduko dugu.

Aurrera pauso bat emanez, gizartearen osasuna hobetzeaz gain, uretako fauna eta flora ere babestuko ditugu. Gure ideia ez da soilik pertsonen osasuna hobetzea, baizik eta ekosistema osasuntsu bat sustatzea. Azken finean, denok behar dugun aldaketa bat proposatzen ari gara.

Horrela, gure produktua ez da soilik irtenbide teknologikoa, baizik eta gizartearen eta ingurumenaren ongizatean lagungarria izan ahal den asmoz sortutako tresna. Beste helburu bat gizartearen kontzientzia handitzea eta ingurumenarekiko errespetua bultzatzea da, eta horrek etorkizuneko belaunaldientzako oinarritzko balioak irakasteko lagunduko du.

Horregaitik, lehen esan bezala, ez gara bakarrik bezero mota baten zentratu baizik eta munduko pertsona guztietan. Gure produktuak gizartearen osasuna eta ingurumenaren ongizatea sustatzea du helburu lez, eta horrela, etorkizun hobe eraikitzen lagundu nahi dugu gure planetaren zaintza eta pertsonen ongizatea lehentasun izanik.